



Louis
Dassance

1888-1976

BIDeGILEAK

Egilea:
Mixel Itzaina



LOUIS DASSANCE

(1888-1976)

Laborari injineru euskaltzalea

Uztaritzen sortua zen Louis Dassance 1888 urtean, abuztuaren 20an, Irigoinea etxean.

Azantzatarretarik zen Louis. Jakina da familia hortako, adar batean segurik, notario izan zirela aitatik semera. Apezpiku bat ere aipatzen dute XIX. mendean Pamiers-ko apezpikutegia onartu ez zuena.

Louisek, Uztaritzeko frailen etxean eta Larroroko semenario ttipian ibili ondoan *Institut National Agronomique* Parisko ikastegian, segitu zituen bere ikasketak. *Ingénieur Agronome* diploma bildu zuen hor.

Bi medaila eskuraturik zen etxera itzuli 14ko gerlatik. 1919an herriko etxeko axurantz ezarria izan zen. Leku hori atxikiko du hogoi urtez eta herri bereko mera edo auzapezgoan egonen da bertze hogoi urtez, 1959a arte.

Ibarnegarayk, 1921ean, pilotaren federazioa sortu zuenean, haren lehen lagunetarik izan zen Louis. Hunen gain eman zuten pilotari doazkon legeen batetaratzea. Ordu arte lege horiek ez baitziren berdinak herri guzietan.

L. Dassance-n
aitamak edo
gurasoak



L. Dassance
komunione
edo jaun hartze
egunean



Irigoinea, L. Dassanceren sort-etxea. Hil arte hor bizi izan da

Gerla ondoan, laborantzari berriz lotu baitzitzaien, ofizioko batasunetan sartu zen eta ez bakarrik Euskal Herrikoetan. Hor ere kargu asko bere gain hartu eta bete zituen. 1921ean, bertze adiskide batzuekin, *Gure Herria* sortu zuen. Agerkari hunen helburua euskal kulturari buruz lan egitea zen. Dassancek huntaz arta hartuko du 1976an, hil arte, eta bere idatzi nagusienak hor publikatuak izanen dira.

Euskaltzaleen Biltzarrean ere 1921ean sartu zen bertze batzuekin batera. 1926an, Jean Etchepare medikuaren ondotik, elkarre horren lehendakari ezarriko dute eta kargu hori 34 urtez atxikiko du. Urruna-



L. Dassance soldado jantzietan.
1914-1918-ko gerlan ibilia zen

go aipatzen dugu hor ereman duen saila. 1949an euskaltzain oso izendatua da eta Euskaltzaindian sartzea Donostian debekatua izanez, zenbait egun berantago Baionan egin zen. 1959an. Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, sortzen laguntzen du eta hemen ere hunen lehendakaritza emaiten diote. 1956an erran behar da ere *Société des Amis du Musée Basque* horren lehen lehendakari ezarri zutela. Eta 1960an *Conseil de défense des langues et cultures régionales* elkartearen buru orde izendatu zuten.



L. Dassance senar-emazteak

Louis Dassance esposatua zen Marie Alzuyetarekin. Sei haur ukanak zituzten, bat arras gazterik galdua zutelarik.

LABORARIA

Lurra maite zuen, maite baserria. 1960 urtean, Arbotin iragan zen Euskaltzaleen Biltzarrean, huna zer zioen: «Baginakien aspaldi, lurrak gizonari, gizonak lurrari, egun guzietako har-eman eta buruz-buru gogor hortarik sortu direla, gero emeki emeki emendatu eta joritu, begien aintzinean ditugun etxalde pizkorrak».



Nekazaritza zoin gehiagoka Urruñan.
Mattin bertularia eskuinean xutik.
Louis Dassance erdian jarririk

Geroxago Aita Gachiteguy eta Aguer jaun kalonjeak laborantza edo nekazaritzaz idatzitako liburuaren aintzin solasean, hauxe zioen: «Ateratzeko laborariak beharko du beti xuxen eta erne ibili... Ofizio ainitz ez baita naski laborantzak bezenbat jakitate mota berex hunkitzen, galdegiten eta nesario duenik...».

Bazakien lurrarekin ez dela gezurka hartzerik, lurraren emaitza ez baita berez emana, beso eta buru jokatu behar da



Lur iraultze zoin gehiagoka Hazpamen 1962an.
René Ospital kontseilu jeneralarekin.
Louis Dassance bigarrena eskuinetik hasiz

lurrarekin. Gerlatik itzuli eta laborantzari lotu zitzaion bere sorterrian. Eskolan ikasia ez zitzaion aski, laborantza jakintza hori segitu du jorratzen, barnatzen, lege eta teknika arrazoeri arras idekia zagolarik. Bertzalde hurbildik segitzen zituen merkatuen harat-hunatak, laborantzako lege mudantzak, diruaren gorabeherak. Eta bazakien aintzintzeko, laborariak ez zutela egon behar bakotxa bere xokoan, bakarrik. Ainitz urrats ibili zuen laborarien artean sindikalismoa finkatu beharrez. Biarnesekin batera xutik eman zituen laborarien bankoa, «Crédit Agricole» deitua, asurantzak «Mutualité Sociale» delakoa eta laborarien sindikata. Ofzioko batasun horietan guzietan egin zioten leku bai Euskal Herrikoetan, bai departamentu guzikoetan. Ukan du zer egin, gutiesten ez zituela abere-primak, laborantza mekanika berri erakusketak. Sail hortan ereman lanarentzat laborantzako mereximendu bi medaila emanak izan zaizkio. Gizon xehea eta mintza errexa izanez, badu, diotenaz, ainitz zerbitzu eginik laborari mundu hortan. «Euskaldun Laborarien Adixkidea» deitu almanaka ezagutzen zukeen. Hau Etcheverry apezak, Uztaritzeko komentuko omonier zenak, 1848 urtean sortu zuen eta 50 urtez biziarazi.



Uztaritzeko herriko etxea



Uztaritzeko herriko etxe aintzinean den orroitarria.
Hunek dio: «Lapurtarrek beren biltzarrak hemen egiten zituzten»

HERRIKO HAUTETSI

Gerla ondoan, gorago erran bezala, axurantz eta gero auzapez egonen da, denetarat 40 urtez. Huna zer dion Piarres Lafitte urte horietaz: «...Hainbertze urtez badu zenbait oren eta buru-hauste pasaturik Uztaritzarren paperren xuxentzen, haien dretxoen baliazten, herriaren intresen zaintzen...».

Kargutan zelarik bere herrian, bi etxe erosi zituen Ferrondoa eta Harretxea, hau ikastola bilakatu beharra zena, denbora batez, geroan. Uztaritzeko posta, herrian atxikitzeko, indar haundiak egin zituen. Nahiz, memento haietan, herriko etxeek


ez zituzten egun dituzten ahalak, bide, ur eta eletrika indarrak nahi izan ditu helarazi urrunean barreaturik zauden etxeetara. Bertzalde, baserrietara eletrika indarra eremaita helburu duen sindikataren sortzailetarik izan zen.



Bere sortzearen ehungarren urteburukari Eskualtzaleen Biltzarrak Uztaritzeko herriko etxean ezarri orroitarria



Gure Herria-ko lankideak 1924an. Ezkerretik hasiz: behean jarririk, bi lehenak: Aita Donostia eta Jean Ybarnégaray deputatua. Bigarren lerroan: Eugène Goyhenetche, Louis Dassance, Moulier (Oxobi), Blazy, ...



Gure Herria. Bere azalean, sortu zenetik, beti atxiki duen itxurarekin

GURE HERRIA

Aipatu dugu gorago agerkari horren sortzea. Ez zen bakarrik izan hastetik. Berak dioenez, sortaileak, gehienak, Larresoroko Semenario ttipiko ikasle ohiak ziren, Arnaud Abbadie buruzagi zenekoak. Huna zenbaiten izenak: Dufau anaiak, Dominique eta Christophe senperrak, Jean Barbier Senpereko erretorea, Jean Elissalde Uztaritzeko bikarioa, Maurice eta Emmanuel Souberbielle uztariztarrak, Edmond Blazy, Baionako lizeoan omonier zena, Jean St Pierre Semenario Haundiko buruzagia, Jules Moulier *Oxobi*, Hiriburun bikario zena, Laurent Apeztegui misionesta.

Horiatarik zenbaitek jada *Eskualduna* aste-karian idazten zuten. *Gure Herria* sortu zen eguna, erran daiteke, dio Dassancek, 1920 urteko buruilaren (irailaren) 20a izan zela. Egun hartan ziren bilduak, beren urteko bestarentzat, Semenarioiko ikasle ohiak. Egun hartan zen bozkatua izan mozione bat Jaun Apezpikuari galdutuz euskararen bai eta Euskal Herriaren historia erakastea Elizaren esku ziren eskola guzietan. Egun hortan zuen Blazyk azaldu *Gure Herria* sortzera zoala eta bakotxaren laguntza eskatu.

Egitasmoa hau zen: hor ageraraztea kon-daira, antzerki, kantu eta hauen doinuak, pilotaz istorio eta xehetasun. Sorkuntzen

agertzeko leku bat ere izan behar zen: Oxobiren alegiak edo St Pierrek idatzi Euskal Herriaren historia. 1972 urtean, Louis Dassancek dio, mende erdi baten ondotik, aldizkaria 304 aldiz atera dela eta 20.000 orrialde publikatuak izan direla. Hemen berean aztertzen ditugu, gainez gain bada ere, uztariztarrak hor publikatu zenbait testu.

PILOTAZALEA

Pilota gogokoa zuen Louis Dassancek, oroz gainetik *Joko Garbia*. 1921 urteko *Gure Herria* zenbaki batean, Jean Elissalderekin batean azpimarratu artikuluan hauxe irakur daiteke erreboteko jokoaz: «Bihi batek ez du begi, buru eta beso gehiago behar...eta hatsa? Eta zangoak?» Ordu haietan, bertsuak dioen bezala: «Pilotak ohore du Euskal Herrietan, zeren den ederrena joko guzietan!» Artikulu berean, bi idazleek beren lana zatitzen dute, hila-betetik hilabetera, argitaratzeko, noiz hasi zen errebotea eta zer moldetan, noiztsu agertu zen orduko moldea eta zerengatik, zein ziren gehienetan onartuak ziren legeak, noiz eta nun izan diren errebotelari



Esku-huskako pilotari xapeldunekin, 1930 urte inguruan. Xutik ezkerretik hasiz: Haitze, Salaberry, Titin, Dominixe. Jarririk: L. Dassance, E. Goyhenetche, V. Alzuyeta

ederrenak eta zertako joko hau piztuko den berriz, Sara, Itsasu eta Hazparne di-relarik, urte haietan, manera horri oraino arras uko egin ez diotenak. Lan hunek ez ote du erakusten gizon hau zein hurbildik lotua zegoen euskal ohidureri, pilota delarik horietako altxor bat? Bere eskuizkribu batzuetan ikasten da ere zein urteetan sortu zitaizken Azantza, Perkain, Kaskoina... Lehen biak hemezortzigarren mendearen bigarren partean, Kaskoina 1817/04/09an. Hiru pilotari hauek baino gutiago ezagutuez ere bada hor ainitz xehetasun.

Halaber, gure uztariztarrak dio bertsu edo kantuari esker dazkigula pilotaren munduko gertakari zaharrenak: Irungo partida, Perkain, Gaskoina eta Azantzaren balentriak... Berak, pilota gai zuten kantu zerrenda ederra bildurik utzi dauku. Azkenik, aipatzekoa da, luzaz buru egon dela, 1926 urtean, Kapito Harri berak sortu pilota taldean; leku hortan bere seme, Beñatek du gero ordainduko.

EUSKAL IZENAK

Indoeuropear deitu mintzairen aintzineko edo aurrekoa da Euskara. Leku izenak ur, erreka, mendi, haran eta abarren izenak denbora haien lekuko gelditu zaizkigun aztarnak dira. Ondotik agertu daitezke auzo eta etxe izenak. Euskarazko lehen



Uztaritze herriko kadastra edo mapa, L. Dassancek bere eskuz egin 1930 urtean

dokumentu inprimatua, Bernard Etcheparena, 1545 urtekoa da. Hori dela eta Louis Dassancek leku eta etxe izen zahar horien garrantzia azpimarratzen du.

Beharrezkoa zaio, ikerlariek aztertzea herrietako kadastrak edo mapak, sortze eta heriotzeak, etxeetako ganerretan edo ganbaretan dauden paper zaharrak eta jendeen buruetan bizirik dauden izenak.

Sail hortan Louis Dassance ez da geldirik egona. 1930 urtean, Uztaritze herriko kadastra edo mapa bere eskuz diseinatu zuen, hor emanez orduko lekuen eta bertze gauzen euskal izenak. Asko ikerleek baliatu dute geroztik lan hori. Bertzalde azpimarratzekoa da E. Goyenetcherekin batera, Uztaritzek eta Uztaritzeko etxeen izenez egin lan paregabea. Hor, xutik edo eroriak ziren etxeen izenak emaiten dituzte, erreka, iturri, eihera, bide eta oihanenak ere bai. Izen horiek sailkatzen dituzte, erranez zaharrenak zein diren... Aipatzekoa da Gaztelua, oraiko Herriko Etxea, Lapurdiko Biltzarra hor baitzen biltzen. 1178 urtean eraikia litaike eta orduan Angeleterrako erregearena zen.



L. Dassance (bigarrena eskuinetik hasiz) bere kide euskalzainez inguratirik

Etxe izen zerrenda hori, 1964ko agorri-lako (abuztuko) *Gure Herria* zenbakian, aurkitzen da. Ezin daiteke aipatu gabe utzi hemen, Mendiondon iragan Euskaltzaleen Biltzarreko bilkuran egin mintzaldia, nola bururatu zuen: «...Behauzue hemengo etxe zenbaiten izenen ederrari: Harregia, Garroa, Gazteluberria, Harriaga, Ibustia, Irunea, Urrutia, Urberoa, Haranea, Hodia, Lizarraga eta bertze zenbat holako,

eta bertze guziak, kasik bihar artino har bainintazke, gogotik, izen eder horien xaramelatzen...».

Bai Euskal lur eta etxearen mintzoa Louis Dassancek entzuten bazakien! Galdatzen zuen bertzalde, herri bakoitzean, xutik emana izan zadien talde bat, zeintan Euskaltzaleen Biltzarrak bere ordaina ukanen baitzuen. Talde horren lana etxe berrieri izen bat emaitan, jabeak kontseilatzea.



Gai askoren ikertzailea

L. Dassance bere sasoi betean zelarik

HISTORIALARIA

Historialari ofizioa ere bete zuen Dassancek, Lapurdi eta Uztaritzeren iragana miatuz. Iraultza aintzineko lapurtar erakundeak hurbiletik azertu zituen artikulu eta hitzaldi desberdin batzu direla lekuko. Nahiz eta azterketa xeheena Uztaritzeri eskaini zizkion, probintzia osoari buruzko lan zenbait ere huntu zituen. Bertzeak bertze, honako hauek miatu zituen: 1789ko iraultza aintzin herriko bozak nola iragaiten ziren Uztaritzen (*Gure Herria*, 1921, 2); Uztaritzeko herriko biltzarra eta auzitegia (*Gure Herria*, 1927, 2); Uztaritzeko etxetiar eta jabeen arteko hitzarmenak (*Gure Herria*, 1928, 4); Uztaritzeko herriak

bere oihaneri buruz 1690ean hartu deliberoa (*Gure Herria*, 1929, 3); Lapurdiko herrien arteko Biltzarra, Eugène Goyheneche historialariarekin batera (*Gure Herria*, 1955, 6); auzo edo kartierren garrantzia Lapurdiko herrien antolaketa politikoan (*Gure Herria*, 1957, 2); Lapurdiko herrien ontasunak eta jabego kolektiboa (*Gure Herria*, 1957, 3). Salbuespen bakar batzu kanpo («L'abbé Darrigol et le prix Volney en 1829», *Gure Herria*, 1922, 10), Dassancek iraultza aintzineko garaiak zituen aztertzen. Nahiz etzituen lan horiek liburu batean bildu, artikulu zerrenda hori ekarpen baliosa izan zen bere garaian. Hura aintzin eta haren garaiko Lapurdiko historialarien lanak untsa ezagutzen zi-



Gure Herria-ko lankideak Ainhoan. Xutik: Blazy eta Elissalde. Ezkerretik hasiz, hirugarrena St. Pierre apeza, ondoan Barbier eta Oxobi apezak. Azkena jarririk, Louis Dassance (1921-1923)

tuela hautemaiten da Dassanceren lanetan: Yturbide, Ducéré, M. Etcheverry, Nogarret,... Orduko historialari frangoren gisa, bixtan da Dassancek doi bat idealizatzen zukeela Aintzin-aroko «etxeen arteko demokrazia», bereziki bere sorterriari zagozionean. Plegu horrek ez dako baliorik kentzen bere lanari. Iturrien arrangura bazuen, eta oroz gainetik bere azterketetan elgarri lotzen zituen ordukotz ezin berexiak ziren bizi politikoa eta egitura sozio-ekonomikoak. Dударik ez Dassan-

cerekin batera (Eugène Goyhenetche) edo hartarik landa (Manex Goyhenetche) Uztaritze eta Lapurdiko ixtorioa miatu zutenek Dassanceri zor ziotena untsa bazakitela. Dena den, Uztaritzeko auzapeza bilakatu zenean, Dassancek bazukeen, dudarik gabe, bere sorterriaren nortasuna eta iragan ospetsuaren berri.

HEGAZTI, TXORI IZENAK

Lurrari hoin hurbil bizi zen gizona, nolaz ez zen ohartuko hunen ingurumenari, oihaneri eta arboletako xorieri. «Euskal herriko hegazkinak eta xoriak» titulupean 1923, 1924 eta 1925 urteetan agertu *Gure Herria*-ko hamar zenbakietan, publikatuak izanen dira hamar artikulua, Louis Dassance eta Jean Elissaldek azpimarratuak.



Ikas batasunaren bilkura batean, ezkerretik hasiz: Sauveur Narbaitz, Jean Haritchelhar eta L. Dassance

Hor emanak zauzku hemen ikus daitezken txorien euskal izenak: kabeka, huntza, okiloa, martxo-txoria, kukua, erlejalea, bas-oilarra eta abar... Hor jakiten da zer diren txori horien ezagutgarriak, horien ohidurak, egitateak, gizonaren ongi-egile diren edo ez, ulitxa edo har garbitzaile... Itsas txoriak ez dira ahantziak. Jakiten da xoxoak kantu soinuak ikas dezazkela eta ere, Gipuzkoan eman dezagun, gure zozoari sasi-zozoa erraiten diotela eta gure biligarroari zozoa. Txori guzi horien frantsesezko izenak ere ekarriak dira euskal izenaren ondotik. Iduri zait lan hunek merexi lukeela arra publikatua izaita, ez bada jada egina, eta ikastola eta eskola elebidunetan zerbitzu ederra egin lezakeela.

KANTU IKERTZAILE

Piarres Lafittek dioenaren arabera, Louis Dassanceri, euskararen gostua 13-14 urteetan sortu zitzaion Larresoron, hasi zelarik euskal kantu biltzen, pianoan joiteko.

Euskal kantua eta hunen istorioa hurbildik aztertu ditu Louisek. Kondatzen du nola Antoine d'Abbadie-k moldatu zuen lehen aldikotz koplak zoin-gehiagoka. 1853



Kantu, kanta, khantore. Kantu bilduma hunen egiten, L.Dassancek P.Lafitte lagundu zuen

urtea zen. Dio jendeak ez dituela baitezpada atxiki mahainburuek hautatu kantuak. Etxahun eta Otxalde-k ez zuten urte hortan deusik irabazi eta Elissambururen *Ikusten duzu goizean* famatua ere ez zen lehen atera; geroxago berdin gertatu zen Otxalderen *Iruñeko ferietan* kantuarekin edo Pierre Dibarrarten *Aitak eman zerautan* edo *Xurikorekin*.

Louis Dassance ez da bakarrik kantuaren historiaz kurios. Huna zenbait adibide erakusten dutenak gizon horrek zer jakin-mina zaukan euskal kantuaz. *Orhiko xoria* 1859 urtekoak bigarren prima ukan



Euskaltzaindian. Eskuinetik hasiz: Haritschelhar, Lafitte, Dassance, Irigaray

zuen. Sorlekutik ez urruntzea dute bertsu horiek gomendatzen. Egilearen izena: G. Haroztegy emana zen. Nehork ez zuen gizon hori ezagutzen; Louis Dassancek, bere ikerketeri esker, zilatu du kantu horien egilearen egiazko izena: Goroztarsou apeza. Hunen familiak Baztanen baldin bazituen erroak, XVII. mendez geroz, Ezpeletako eskualdean finkatua zen. Apez horrek egin bertze kantu batzu ere emaiten ditu gure uztariztarrak eta anitz xehetasun azaltzen zoin-gehiagoka horietan erabiltzen ziren izen ordez.

Anitz xehetasun emaiten dauku *Judu heratuaren kantuak* deitu bertsuetaz, eta horien doinuetaz (hiru segurik), bere iker-

keten emaitzak konparatuz J.M. Satrustegi eta Azkuek, gai beraz egin laneri. Emaiten ditu ere frogak, kobla horiek eskualde orotan ezagutuak zirela, Zuberoan ere bai, eta hori Chambra deitu Santa Graziko kantari zenaren kaier batean aurkitu bertsuak ikertuz. Hain ezagutuak diren *Belatxa* eta *Arranoaz* argitasun asko azaldu ondoan, azpimarratzen du Charles Bordes, musikari haundiak, Larrañen entzun zituela hango kantari batek emanik, ezin ahantzizko oroitzapena utzi zutenak artista horren baitan. Hunek omen zion eliza batean entzutekoak zirela melodia horiek, azpimarratuz horien edertasuna eta berezitasuna!



L. Dassance-n eskuizkribu bat zointan Larre jaunari galdatzen beiti bere aitaren ahotik ikasi bezala igo dizkion «apez beltaren» koplak

Xaho, J.D.J. Sallaberry eta Aita Landek ezagutarazi dute Beñat Mardo, bertsulari bezala, iduriz aspaldikoen. Bainan bere ikerketeri esker Louisek bertzerik ere ikasten dauku gizon hortaz. Berdin «Joanes Ikustale»-z. Nor ote da «Ikustale» hori? XIX. mende erditsutan, aldudar eta baztandarren artean iragan pilota partida batez egin 19 bertsu azpimarratzen ditu «Ikustale» horrek. 1853 urtean litaizke eginak. Zer dakigu bertzalde bertsu horietan aipatu jende eta lekuetaz? Lau orrialde-tan, Louis Dassancek emaiten dauzku bere ikerketen emaitzak «Uzta apurra» dela

dio berak, bainan iduri zaio «xeheteria xumeenek» erakusten daukutela, «iragan denboretako gure arbasoen arpegi eta bizi moldea».

Artetik erraiten dauku ere kantuari eta bertsuari esker ditugula ezagutzen pilotaren istorioaz dazkigunak. «Alabainan, kanturik izan ez balitz, nolaz jakinen ginuen, Azantzak ez zuela parerik pilota botatzen, eta hain zalu zela Perkain, nun plaza guziarentzat bera aski baitzen.» Berdin Curutcheten izena koplak bati esker da biziko. Eta zer erran Irungo partida famatuan egin ziren trebes itsusiez?

Bertzeak bertze, ainitz ikasten dauku Elissanburu, «Ikusten duzu goizean» kantua egileaz eta hunen aitamez, Darrigol apezaz, Jean Barbier Senperereko erretorak *Gure Herria*-n publikatu lanez eta oroz gaintetik J.D.M. Sallaberry Mauleko notariaz. Hunek zuen publikatu Euskal Herriko kantore zahar bildumetan lehenetarik bat, 50 kantorekin. Balitaike anitz eta anitz erraiteko Louis Dassanceren lanaz eskual kantua. Azpimarratzekoa da ere, gerla ondoan, Piarres Lafitterekin parte hartu zuela *Kantu, kanta, kantore* liburuan.



Uztaritzeko kaxkarotak, ihauterietan 1904 inguruan. Alexandre Casaubon-ek margotua 1925ean

DANTZA IKERTZAILE

Kantuaz gain, dantzari ere ohartua zen Louis Dassance. 1927an *Bulletin du Musée Basquen* argitaratu zuen lan balios bat Lapurdiko dantza jauzi eta ihauterieri buruz. Bera uztariztarra izanki eta, Lapurdiko hiri nagusi zaharreko ihauteri bereziak hurbiletik aztertu zituen, beren kaxkarot, kotilun gorri, marika eta ponpierrekin. 1960-1970 urteetan Jean-Michel Guilcher CNRS-eko etnologo bretoindarra lagundu zuen Lapurdiko dantzen jorratzen. Bertzeak bertze, Dassanceri esker bildu

zituen Guilcher-ek XIX. mendeko dantza jauzien partitura zahar batzu, bai eta Uztaritzeko kaxkarot ohien lekukotasunak. Dassance berak Guilcher senar-emazten lanak hurbiletik segitzen zituen, elgarri igortzen zituzten eskutitzak eta *Gure Herrian* agertu lanak direla lekuko (*Gure Herria*, 1971, 1). Nahiz berak guti idatzi duen dantzari buruz, Dassanceri esker badugu Uztaritzeko lehengo dantzari eta soinularien berri, hala nola Hippolyte xirribikariak Heraitzen zuen dantza eskola zela eta, edo Lapurdiko dantza jauzi zaharren zerrenda.



Euskararen eragile

Euskaltzaleen Biltzarra Kanbon
(1965-1970 inguruan)

EUSKALTZALEEN BILTZARRA

Elkarte hau 1901 urtean zen sortu Hendaian, «Euskararen beiratzeko, zaintzeko eta haren alde lan egiteko...» xedearekin. Lehen buru Adema kalonjea eman zuten, bigarren buru Arturo Campi3n eta Sabino Arana Goiri. Ikusten da mugaz bi aldetakoak zirela batasunaren sortzaileak. Bainan, batasunaren izena, buruzagien izendatzeak, sortarau eta erabil moldeak ondoko urtean, 1902an, Hondarribian egin bilkuran, zituzten onartu eta finkatu.

Louis Dassance, Euskaltzaleen Biltzarreko buru egonen da 1926tik 1960ra. Berak Jean Etchepare zuen ordaindu, eta Mixel Labegueriek du haren segida hartuko lehendakari bezala.

Bere lehen mintzaldia 1927 urtean Donazaharren egin zuen, bere kargua utzi arte helburu izanen duen egitasmoa azalduz. Huna zer zioen: «...Batasun hunen xede baitezpadakoa da euskararen iraupena... Bakarrrik Euskara da gure ontasun baliosena, Euskalduna hertsikienik bere herriari, bere lurrari estekatzen duen loka-

rria... Mundu zabaleko mintzaire guzietan ederrenetarik bat eta segurki orotan zaharrena... Jakintsun haundienek hoinbertze goresten eta miresten duten gauza... Zorigaitzez soberaxko ohartu zaizku munduko lau kantoinetako arrotzak herriaren ederrari, nehun ez bezala, hunarat heldu dira tropaka eta frangotan alderat egoiten... Heien aldean gauden gu... Atxik ditzagun oraino hertsikiago gure ohikuntza ederrak eta bereziki, haur guziek, ttipitik, ikas dezatela ongi euskara». Nahi luke «pitzarazi eta hedarazi Euskal Herriko xoko moko guzietan Euskararen alderako amodio eta garra».

Mezu hori du errepikatuko urtetik urtera, Donibane, Barkotxe, Arrangoitze, Baigorri, Garruze, Santa Grazi, Hendaia, Aldude, Donazaharre, Eskiula, Lekorne, Izura, Heleta eta bertze asko herrietan... Laguntzaile onak zituen inguruan, haietan lehen urteetan Jean Etchepare, eta luzaz J. Elissalde *Zerbitzari* eta bertze. Hauetan Oxobi, hunek zuen 1932 urtean aldarrikatzen Donibane Garaziko biltzarrean: «...Hegoaren oihuaz, Xoriñoen erasiez

bertzerik da Eskuara, miletan eta miletan ederragoa, zuhurragoa, ezin ordaindua!».

Helburu hortarat heltzeko, bertzeak bertze, eskoletako haur eta semenarioetako gazteen arteko zoin gehiagokak eta lanak xutik emaiten ditu Euskaltzaleen Biltzarrak. Dassancek dio: «Urtetik urtera, gogotikago lotzen dira haurrak emaiten dazkoguten lan ttipieri... Hilabete bat osoa, hortaz dute solasa...». Jakiten da hogoi urteren buruan, 73 herrietarik jin direla lanak eta 1.595 hurrek parte hartu dutela... Urte haietan saristatuetan hunan zenbait izen: J.-B. Etcharren, G. Eppherre,



Eskualtzaleen Biltzarra Kanbon. L. Dassance xutik erdian. Bertzeak: eskerretik hasiz, André Ospital, Jean Haritschelhar, andere Malharin, Michel Labéguerie, E. Pochelu eta andere Seguin

Jean Etchehandy, Leon Pochelu *Garralda*, Piarres Larzabal, Léon Léon, Eyeramendy eta ere Piarres Lafitte! Azken bi hauek Euskaltzaleen Biltzarraren prima haundia ukan zuten. Louis Dassancerentzat eskola ttipi, kolegio eta semenarioetan Euskaltzaleen Biltzarrak egin-arazten dituen lan horiek euskaldungoa azkartzen dute haur eta gazteen baitan.

Euskaltzaleen Biltzarrak bertze egin behar bat ere bete du. Hori da oroitarrien emaita. Huna Dassance buru zela, eman izan diren zenbait: 1928 urtean Azkainen, Michel Chouriau eta Sylvain Pouvreauren ohoretan; 1930ean Ezpeletan, Duvoisinen



Lucien Bonaparteren ehungarren urteburua. Lehen lerroan ezkerretik hasiz: Villalonga, Gavel, Lavogt (norvegiarra), Mathieu apezpikua, Arrue, L. Dassance

omenez; urte berean Uztaritzen, Lapurdiko Biltzarraren oroitzapenez, 1929an Bitiñan, Larresoroko semenarioan superior egon zen Abadie kalonjea sortu zen Garatea etxean. Egun hortan hitza hartu zuten Ybarnegaray, St Pierre eta Jean Etcheparek. 1948an, P. Dibarrart, Baigorriko xantre ohi eta bertsulariaren etxe izanean ezarri zen oroitarri hori.

Euskaltzaleen Biltzarrak bertsolaritza ere ederki lagundu du. Ikusiz nola iragaiten zen urteko biltzar haundia, ohartzen gira bertsulariak beti hor direla: Ligueix Larrañekoa, Larralde luhusoarra, Matxin senpertarra eta Larramendy eiheralartarraren izenak agertzen dira gerla aintzinean bederen. Geroago hurbilduko dira Mattin, Xalbador eta bertzeak... Ez da dudarik, bersularientzat, garrantzia haundia izan duela Euskaltzaleen Biltzarrako jauneriaren aintzinean kantatzeak. Horrek du bertsularitza ostatutik atera eta ere elizarat ereman, iparralde huntan segurik. Erran behar da Euskaltzaleen Biltzarraren urteko egun hortarat hurbiltzen zirela kargudunak, deputatu, zenatur, apezpiku edo gotzainak... Eta egun hortan Euskara zen errege. Behin Léon Berard famatua bera Dassancek ez zuen utzi mintzatzerat euskararik ez baitzakien!



Euskaltzaleen Biltzarraren 1921ko bil-aldia



L. Dassance St. Pierre apezpikuarekin Eskualtzaleen Biltzarraren egunean Dominitxinen, 1938 urtean

EUSKARAREN EGUNAK

«Eri gaizki da Eskuara, hil-hurran ez bada ere... Alta ez ote dauka berekin gure mintzairak gure izaitze guzia...» Hori dela eta, *Euskararen eguna* antolatzea erabakia da, euskaldunak diren leku guzietan, Euskal Herrian eta hortik kanpo ere bai.

Egun hori herrietako buruzagien gain eman nahi zen, bai eta ere apez, serora, gazte elkarteen buruzagi, errient eta errientseri ere dei egina zen: mintzaldi, antzerki, liburu banatze, eske... Denetan zerbait egitea galdatua zen. Deia azpimarratua zen Eusko Ikaskuntzen Lagu-

nartea-ren izenean, lehen buru zen Jean Saint Pierrek eta Euskaltzaleen Biltzarraren izenean Louis Dassancek. Bi lehen buru horiek zuten, 1949 urtean, eguna aurkeztu Miarritzen prentsaren aurrean. Abendoaren 3a, Xabierreko San Frantzesen besta eguna, zen hautatua izan. Helburua, bertzeak bertze: «...Urgulu xuxen batez bete ditela euskaldunak eta ez bakarrik dotzena bat jakintsun!».

Uztaritzen, *Frères*-en eskolan ospatu izan dela Euskararen egun hori 1951 urtean badakigu eta ere Louis bera han kausitzen zela. Dakiguna ere 1958ko maiatzean zela egun hau ospatu Donibane Garazin.

Eppherre jaun kalonjeak, bere predikuan, azpimarratu zuen zer munta duen Euskaldungoak, «...Bai gure jitearen, bai gure fedearen aspaldiko pleguetan atxikitzeo...».

Zazpi bertsularik alaitu zuten eguna, Basarri haundia bera hor zelarik. Bazkalartetik horieri juntatu zitzairen Manex Etxamendy ezterentzubierra. Dassance jaunak, bi hitz hunkigarri erran ondoan, urrezko medaila eder haundi bat papoan lotu zion. Hartan ezarria zen: «Manex Etchamendy, Bertsularien Aitasori 1958». Mixel Labeguerie zen gai emaile, eta bertsurik hoberenaren saria, Oxobi zenaren omenez, Mattinek zuen irabazi.

Holako adibide batzuek erakusten dute *Euskararen Egun* hori ez zela debaldetan asmatua izan.



L. Dassance, Guillaume Eppherre jaun kalonje xuberotarrari sari bat emaiten

ETA BERTZERIK ERE

Lehen orrialdean eman ditugu Louis Dassancek bete kargu nagusienak. Baina iraupen laburragoko elkarteetan ere parte hartu du: 1948 urtean, *Gernika*-ren buru orde zen Monzon eta Lafitterekin, Barandiaran zelarik buru. Ondorioz *Eusko Jakintza* agerkarian idazten zuen eta Miarritzen, elkarte horrek muntatu buruileko (iraileko) egunetan parte hartu zuen, «Laborantza eta Hazkuntza» gaietaz hitz egiten zuelarik. 1954an, Louisen buruzagitzapean iragan ziren *8^{ème} Congrès des Etudes Basques* elkarteak antolatu egunak. Mintzaldien lekuak diferenteak izan ziren eta gaiak mota askotakoak: literatura, antzerkia, laborantza... Mathieu apezpikuak zituen egun horiek ideki.

Bertzalde erran dezagun Dassancek hasetik lagundu duela *Herria* astekaria eta idatzi duela ere *Almanaka*-n. Euskaltzaindian sartu zelarik 1949 urtean, ez zen nor nahiren konpainian sartu, lagun horiek baitziren: Jean St-Pierre apezpikua, Manuel Lekuona apeza, René Lafon Bordeleko euskara erakaslea eta Piarres Lafitte!

NOR OTE ZEN LOUIS DASSANCE?

Hamar dotzena bat medailaz ohoratua eta hoinbertze kargu bete dituen gizona nor zen?

Haren idatzietan, zenbait denboraz murgildurik ibili ondoan, huna zer iduri zautan:

Lehenik Dassance jakintsun bat da. Xori eta hegaztiez utzi lana, eman dezagun, gorago aipatu dugu ikerketa lan hori. Har dezagun adibide bat, «galerna xoria». «...Xori huni itsasturiek bardin erraten diote “ekaitz xoria” edo oraino “debruxka” euskaraz, erdaraz *sataniques* bezala. Galerna xoriak iduri du ainhara. Maiz itsaso zabalean bizi da eta ez da hegietarat hurbiltzen galerna haundi-haundien ondotik baizen. Hortarik izen hau. Itsasturien arteko erran baten arabera-eta tieso finkatzen dutela gero! Galerna xoriak ez omen dire egiazko xoriak, bainan bai arima herratu batzu: beren untziak galdu dituzten kapitainen arimak. Ez da beraz harritzeko bat eskuratzen dutelarik itsasturiek, mila puska egiten badute! Gaixo xoria! Eskutan



Piarres Larzabal-en Eskualzaingian sartzea. Ezkerretik hasiz: Krutwig, Villasante, Diharce, Irigoyen, Larzabal, Dassance, Lafitte, Eppherre, Etchezaharreta, Irigaray, Akesolo, Minier (Azkaineko auzapeza), Haritschelhar

behin galerna xori bat ibili dugu eta guri ez zauku deusik iduritu!»

Gorago erran dugunaz bertzalde, beraz, Louis Dassance eta Jean Elissaldek hegazti horieri atxikiak zitzaizkion herri sinesteak ere aipatzen dituzte! Oro har, egiazko entziklopedia bat da lan hori eta bada hor zer ikas.

Ikerlari zuhur eta adimendu xorrotzeko baten itxura dauku emaiten gure uztariztarak. Euskal kantuz, dantzez, Lapurdiko historiaz eta toponomiaz —landareen eta toki izenen arteko har-emanak ikertu ditu— utzi dauzkun lanak izpiritu argi bezain kurios baten lekuko hor ditugu.



Ikas elkartearen zenbait dokumentu.
L.Dassance Ikas-eko lehen buru izan zen

Adibide bat bakarrik: Itsasu herriaren ize-na, Itsasu, Itsas-ez aberats den herri bat? Denek hala diote. C. Dendaletche eta E. Goyenetcheren aburuak ez zaizkio aski. Bai, haukien lanetarik abiatuko da, Lhande eta Azkueren hiztegiak eskuan. Louis, itsas adar loratu bat eskuan, Errobi bazterreko hamar herrietan ibiliko da, jende zaharrei galdatzen nola deitzen duten adar hori. Erantzunak ez dira berdinak... Ondotik oharpen berezi batzu emaiten ditu toponomiari buruz, erakutsiz zein zuhurki eta umilki behar den eremu hortan aintzinatu.

Azkenik, Louis Dassance euskara gure mintzairaren amoros bat da. Eta zein ederki ez du emaiten. Irakur, hoinbertze urtez, Euskaltzaleen Biltzarrako urteko bilkura-
ren egunetan egin mintzaldiak edo xoilki, Jean Etchepare zendu eta Kanboko hilha-



Uztaritzeko ikastola, *Louis Dassance* deitua

rrietan, 1935 urtean, atera hitzaldia, bere osoan merexi lukeena hemen agertzea. Bertzeak bertze, hauxe zioen: «Euskaldun seme suhar eta kartsu horri zoakon agurra Eskuarak egin behar ziola... Bai zorigaitzeko eguna aurtengo urtarrilaren 9a! Egun hortan Eskualdunek gizon bat galdu dutelakotz, Eskuarari bere idazle hoberena gelditu zaiolakotz, Eskual Herriari bere seme hoberenatarik bat itzali zaiolakotz...». Holako Euskara ahoan zabilan gizonak Euskara gain-gainetik menperatzen zuela ez da dudarik... 1960 urtean, Arbotin, beti hor dena, «Xaharraren xaharraz, eta egonaren egonaz...». Ez dauke erran gabe: «Begi aintzinean ditugun oihan, pentze eta alorrak, berdin eder eta begikoak ote

litaizke, euskararen erabiltzetik bazterten balire erabiltzen dituzten gizonak?... Gure arbasoek utzi erorkia ez baita bakarrik lur erorkia, zenbat mila urteek zizelkatu mintzaira barne baita erorkia hortan... Eskuara, gure izaite barnenaren eta berezienaren urrezko gakoa...». Hari beretik zoan, 22 urte lehenago, Domintxine herrian aldarrikatzen zuena: «...Lur maite hunek, bere edergailu eta ontasun segurrena, hitz batez, bere izaite berezia eta baitezpadakoa betan galduko dituela behin ere, zorigaitzez, Eskualdunek eskuara galtzerat uzten badute ...».

«Bizi dadin Eskuara orai eta gero, berma gaiten hortarat Eskualdunak oro.» Hori izan da Louis Dassancek, urtez urte, errepikatu leloa. Nor zen Louis Dassance?



Eskualtzaleen Biltzarreko sari bat neskata bati emaiten. Atzean, Michel Labéguerie

Galde horri erantzun zerbait emaitenko, hau ere erran behar da. Louis ez zen politika gizon bat, ez politikero bat segurik! Euskaltzaleen Biltzarra, «Euskararen adiskideen elkarte» zuen deitzen, ez zeraukan politika elkarte bat: «...Utz bazterrerat bat bertzetik berexten ahal gaituztenak eta lot gaitezen elgarretaritzen gaituzteneri ...» zioen bere mintzaldietan. ELGAR, Pariseko Euskaldunen kazetan agertu elkarrizketa batean aitortzen du eskainia izan zaiola deputatu eta zenatur gradoetako bideari lotzea. Ez du onetsi. Dio: «Nahiago izan dut Euskal Herrian barnetik lan egin». Bai barnetik, baina Euskaldun guziekin, iparraldeko eta hegoaldekoekin. 1929 urtean, Donapaukeko Biltzarrean, agurtu ondoan, Bizkaitik, Gi-



Ikas-ek publikatu zenbait eskuliburu eskoletako haurrentzat

puzkoa eta Goi-Nafarratik etorri anaiak, honela segitzen du: «Denek elgarrekin lan egin dezagun, zazpi probintziek elgarrekin, Euskarak baitu horien denen beharra, egun hunen errannahia hau da: komuniatzea elgarrekin gure lurraren maitasunean, gure Euskara milenaria salbatzeko!».

Eta azkenik, nor zen gizon hau hobekienik erraiten daukuna, uste dut, testo hau dela, berak J.-D. M. Sallaberry (1837-1903) Mauleko notari, kantu biltzaileaz idatzia: «... Pentsatzeko da maiz bazoala herriz herri, etxez etxe, eta hain segur, igande arratsetan ostatuetan ere, ezagutzen ez zuen kantu zahar bat nun zuen sendi... Kaiertto bat sakelan hitzen eta airearen kopiatzeko... Ainitz adiskide zuen gizona zen, bai haundi edo ttipi... Gizon bat ona, lañoa, ongi egilea, jakintsuna eta alderdikariarik gabekoa... Ez zituen politikaren itzuli-mitzuliak hanbat prezatzen...». Ez ote da hitz horietan errana Louis Dassanceren nortasunaz erran ditaiken beharrena?

Louis Dassanceren sortzearen ehungarren urtemugakari, M.-J. Minaberrik idatzi olerki hunekin, bururatzen dugu gure lan xumea:

ESKUALDUN SEMEA

Begiak dituzu, zerua bezala,
Urdin eta argi, berotzen dutela
Beren so beroaz, zure aurpegia.

Biloak dituzu, elurra bezala,
Xuri eta garbi, iduri zirela
Gure sustagarri, eskualdun argia.

Mantenia duzu ezpata bezala,
Xotil eta lerden salatzen duela
Hanbat zintzo duzun izaite guzia.

Zure baitan dira, argitan bilduak,
Eskual semearen dohain aberatsak.
Zutan kausitzen da, jakitatearen,
Zuhurtzia eta goxotasunaren
Bilduma osoa.

Zutan agurtzen dut
Aitoren seme bat.
Zutan maitatzen dut
Eskualdun suhar bat.



L.Dassanceren sortzearen ehungarren urte-mugakari atera liburuxka

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Dassance familiari
- Baionako Euskal erakustokiari
- Belokeko Marcel Etchehandyri
- *Herria* kasetari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2792-8 (Lan osoarena)
978-84-457-2793-5

L.G.: VI-446/08

BIDOGILIEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco